

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Lanpostuen zerrendan egindako aldaketak behin betiko onartzea

Udal Osoko Bilkurak 2020ko maiatzaren 27an onartu eta 2020ko ekainaren 8an ALHAOn (64. zk.) argitaratu zuen lanpostu-zerrendaren aldaketaren hasierako onarpena jendaurrean jarri zenean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, lanpostuen zerrendaren aldaketa hori behin betiko onartutzat jotzen da; beraz, lanpostuen zerrenda honela geratzen da:

PLANTILLA ORGANIKOA

I ERANSKINA

1. KARRERAKO FUNTZIONARIOAK

1.1. Gaikuntza nazionala dutenak

A) Izena: Idazkaritza –Kontu-hartzailtza. Plaza kopurua: 1. Taldea: A1. Titulazioa: Zuzenbidean, Politika eta Administrazio Zientzietan, Soziologian, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Ekonomian edo Zientzia Aktuarialetan eta Finantza Zientzietan lizentziaduna. Hizkuntza-eskakizuna: 4, derrigortasun-datarik gabe. Egoera: jardunean. Dedikazioa: osoa. Lanpostu-mailako osagarria: 28. Lanpostuak betetzeko sistema: lehiaketa-oposizioa. Berariazko osagarria: 24.262,31 euro.

1.2. Administrazio Orokorrekoak

A) Azpieskala: Administraria.

1. Izena: administraria. Plaza kopurua: 1. Egoera: lanpostu hutsa. Taldea: C1. Dedikazioa: osoa. Lanpostu-mailako maila osagarria: 16. Berariazko osagarria: 19.548,18 euro. Lanpostuak betetzeko modua: oposizio-lehiaketa.

B) Azpieskala: menpekoa.

1. udal aguazila. Plaza kopurua: 1. Taldea: C2. Eskala: Administrazio berezia. Administrazio-egoera: aktiboa. Titulazioa: eskola-graduatuaren titulua, lehen mailako lanbide-heziketa edo baliokidea. Hizkuntza-eskakizuna: 2, derrigortasun-datarik gabe. Dedikazioa: osoa. Lanpostu-mailako osagarriaren maila: 13. Berariazko osagarria: 19.068,04 euro. Lanpostuak betetzeko sistema: lehiaketa-oposizioa.

C) Azpieskala: laguntzailea.

1. Izena: administrari laguntzaileak. Plaza kopurua: 1. Egoera: lanpostu hutsa (bitarteko bidez betea). Taldea: C2. Titulazioa: eskola-graduatu, lehen mailako lanbide-heziketa edo baliokidea. Dedikazioa: osoa. Lanpostu-mailako osagarria: 12. Berariazko osagarria: 19.068,04 euro. Horniketa-modua: lehiaketa - oposizioa. Hizkuntza-eskakizuna: ,2 derrigortasun-data: 1996ko uztailaren 20a.

2. LAN KONTRATUDUN LANGILEAK

2.1. Lanpostuaren izena: liburutegiko laguntzailea. Plaza kopurua: 1. C2 taldea. Administrazio-egoera: lanpostu hutsa (bitarteko bidez betea). Titulazioa: eskola-graduatuaren titulua, lehen

mailako lanbide-heziketa edo baliokidea. Hizkuntza-eskakizuna: 2, derrigortasun-data: 1993ko otsailaren 27a. Egoera: lanpostu hutsa (biarteko bidez betea). Dedikazioa: partziala ehuneko 85. Lanpostu-mailako osagarria: 12. Berariazko osagarria: 10.235,41 euro. Lanpostuak betetzeko sistema: lehiaketa-oposizioa.

Horren berri ematen da, zabalkunde orokorra izan dezan.

Izarran, 2020ko ekainaren 30ean

Alkateak

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA